

LASARTE-ORIA lantzen

Udal aldizkaria **Revista municipal**

Otsaila **Febrero 2017** - Zk. N° 12



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO





LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Aurkezten dizuegun Lasarte-Oria Lantzen aldizkariaren zenbaki berri honetan udalaren 2016ko jardueraren errebasoa egiten dizuegu. Aurten herritarren ekimen oso interesgarriak finkatzen ikusi ditugu, hala nola *Lasarte-Oria KaleraFest* edo *San Silvestre* lasterketa. Horiei esker, kirolen eta festen arloko beste jarduera askorekin batera, gure herria erreferente bat da eskualdean.

Gure kaleetako jarduera horrek, ordea, ez dio garrantzirik kendu behar inbertsioei, handiak nahiz txikiak, horiek hobetzen baitute gure kale eta plazetako bizi-kalitatea. **Aurten 4.133.847 euro bideratu ditugu inbertsioetara, eta hori aldizkarian azaldua ikusiko duzue. Kopurua % 226 hazi da 2015ekoaren aldean. Inbertsio horietako batzuk jadanik gauzatuta daude; beste batzuk, berriz, lizitatuta daude, eta besteak lizitazio-epean.**

Baina alaitasunerako tarteak ere izan dugu. Esate baterako abuztuan, Lasarte-Oriako herriak bere burua osorik eman zuenean gure herriarentzat erreferente diren bi emakumeri harrera egiteko: Maialen Chourraut piraguista, Rioko Joko Olinpikoetan urrezko domina bereganatu zuena, eta Nely Carla Alberto, eskubaloiko taldearen "gerlari" gisa 6. postu txalogarri lortu zuena.

Agur bero bat.

En este nuevo número de Lasarte-Oria Lantzen que os presentamos hacemos un repaso de la actividad municipal del 2016. Un año en el que hemos visto asentarse iniciativas ciudadanas muy interesantes como el *Lasarte-Oria KaleraFest*, o la carrera de *San Silvestre*, que junto a otras muchas actividades deportivas y festivas hacen de nuestro pueblo un referente en la comarca.

Una actividad en nuestras calles que no debe restar importancia a inversiones, grandes y pequeñas, que vienen a mejorar la calidad de vida en nuestras calles y plazas. **Este año hemos destinado 4.133.847 euros a inversiones, lo que veréis reflejado en la revista. Un incremento del 226% respecto al 2015. Algunas de esas inversiones ya están ejecutadas, otras están licitadas y otras en periodo de licitación.**

Pero también ha habido espacio para la alegría. Como en agosto, cuando el pueblo de Lasarte-Oria se volcaba para recibir a dos mujeres referentes para nuestro pueblo: la piragüista Maialen Chourraut, flamante medalla de oro en los Juegos Olímpicos de Río, y Nely Carla Alberto que, como "guerrera" del equipo de balonmano, obtuvo un meritorio 6º puesto.

Un saludo.

Jesus Zaballos de Llanos
LASARTE-ORIAKO ALKATEA

AURKIBIDEA-ÍNDICE

- | | |
|---|---|
| 2. Alkatearen agurra-Saludo del Alcalde | 10. Merkataritza eta Enplegua-Comercio y Empleo |
| 3. Alkatetza eta Gardentasuna-Alcaldía y Transparencia | 12. Festak-Fiestas |
| 4. Zerbitzu Publikoak-Servicios Públicos | 12. Kirolak-Deportes |
| 6. Obrak eta Hirigintza-Obras y Urbanismo | 14. Gazteria-Juventud |
| 7. Ingurumena eta Etxebizitza-Medio Ambiente y Vivienda | 15. Kultura eta Hezkuntza-Cultura y Educación |
| 8. Zerbitzu Sozialak eta Berdintasuna-Servicios Sociales e Igualdad | 16. Euskara-Euskera |

■ **Argitaratzailea:** Lasarte-Oriako Udala. **Edita:** Ayuntamiento de Lasarte-Oria. **Argazkiak:** Lasarte-Oriako Udala.

Fotografías: Ayuntamiento de Lasarte-Oria. **Ale kopurua / Tirada:** 8.000. **L.G. / D.L.:** SS 274-2008

ALKATETZA, GARDENTASUNA ETA ANTOLAMENDUA

ALCALDÍA, TRANSPARENCIA Y ORGANIZACIÓN

Memoria historikoa Memoria histórica

Islada Ezkutatuak taldearekin batera, martxoan 36ko estatu-kolpearen lekuko zuzenak izandakoak omentzeko ekitaldia egin zen. Uztailean, eta kolpearen 80. urteurrenaren kariatz, udalbatzarrak aho batez onetsi zuen deklarazio instituzional bat, gertaera haiek gaitzetsiz eta haien biktimekiko zor morala aitortuz.

Junto a *Islada Ezkutatuak*, en marzo se realizó un acto de homenaje a los testigos directos del golpe de estado del 36. En Julio, y con motivo del 80º Aniversario del Golpe, el Pleno aprobó por unanimidad una declaración institucional condenando los hechos y reconociendo la deuda moral con sus víctimas.

Partaidetzazko aurrekontuak Presupuestos participativos

Lehenbiziko aldiz parte-hartzezko prozesu bat garatu da udaleko aurrekontuen lanketan. Herritarrek 500.000 €ren destinazioa erabakitzeke aukera dute beren bozketen bidez.

Por primera vez se ha desarrollado un proceso de participación en la elaboración de los presupuestos municipales. La ciudadanía tiene la oportunidad de decidir el destino de 500.000 € mediante sus votaciones.

2016ko aurrekontuak Presupuestos 2016

Udalak aurrekontu municipalak onetsi zituen, 25.519.882 €ko kopuruarekin: 2015ean baino % 17 gehiago. Inbertsioak, berriz, 4.133.847 € izan ziren, aurreko urtean baino 2.866.132 € gehiago.

El pleno aprobó los Presupuestos Municipales, que ascendieron a 25.519.882 € y con un incremento del 17% respecto a 2015. Las inversiones alcanzaron 4.133.847 €, 2.866.132 más que en el periodo anterior.

2016ko aurrekontuak Presupuestos 2016

ATALA / ÁREA		%
Administrazioa eta Pertsonala - Administración y Personal	8.005.421,36 €	31,37
Ogasuna eta Ondarea - Hacienda y Patrimonio	864.249,35 €	3,39
Kultura eta Heziketa - Cultura y Educación	528.692,82 €	2,07
Gazteria, Festak eta Kirolak - Juventud, Festejos y Deportes	1.700.279,99 €	6,66
Euskara - Euskera	493.312,58 €	1,93
Gizarte-Zerb. eta Berdintasuna - Servicios Sociales e Igualdad	4.172.413,46 €	16,35
Hirigintza eta Ingurumena - Urbanismo y Medio Ambiente	3.413.696,18 €	13,38
Zerbitzu Publikoak - Servicios Públicos	6.341.815,87 €	24,85
Guztira - Total	25.519.881,61 €	100,00

Wifi sarea Red Wifi

Udalaren WiFi sareari beste sarrera-puntu bat gehitu zitzaion, Antonio Mercero eraikina estaltzen duena. Haren inguruari ere ematen dio estaldura, Okendo Plazan eta Askatasuna Parkean.

La red WiFi municipal se amplió con un nuevo punto de acceso que cubre el edificio Antonio Mercero, dando también cobertura a Okendo Plaza y Askatasuna Parkea.

Euritan ere jolasean Jugando con lluvia

Hiri Dunak Estudioak parte hartzezko prozesu bat egin zuen, guneko publikoak estali beharraz edo ezaz iritzia emateko aukera ziena herritarrei, 12.000 €ko zenbatekoan.

La empresa Hiri Dunak Estudio realizó un proceso de participación que permitió a la ciudadanía opinar sobre la necesidad o no de cubrir espacios públicos por un importe de 12.000 €.

Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna Participación ciudadana y transparencia

Parte-hartzezko hainbat prozesu egin ziren, hala nola: 2017ko Inauterietarako gaia hautatzea, San Pedro jaietarako proposamenak eta kartela hautatzea, urteko kirolariak aukeratzea edo terrazan ordenantza.

Se realizaron diferentes procesos participativos como: elección de tema para Carnavales 2017, propuestas para Fiestas de San Pedro y elección del cartel, selección de deportistas del año o la ordenanza de terrazas.

Etxegabetzeen kontrako bulegoa Oficina antidesahucios

Udalak bat egin zuen Diputazioaren Etxegabetzeen kontrako Bulegoarekin, hipoteka betearazteko arriskuan direnei babes eta laguntza juridikoa emateko.

El Ayuntamiento se adhirió a la Oficina Antidesahucios de la Diputación para dar protección y asistencia jurídica a personas en riesgo de ejecución hipotecaria.

ZERBITZU PUBLIKOAK SERVICIOS PÚBLICOS

Asfaltatzea Asfaltado

Oraindik orain asfaltatu dira honako kale hauek:

- Loidi kalea
- Institutuko biribilgunea

Eta aurki Orsa enpresak beste hauek asfaltatuko ditu 33.646 €an:

- Arranbide kalea, 8.etik 16.era
- Goikale 19-21

Se han asfaltado recientemente las siguientes calles:

- Loidi kalea
- Rotonda del Instituto

Y próximamente la empresa ORSA asfaltará por 33.646 €:

- Arranbide kalea nº 8 a 16
- Goikale 19-21



Haur-jolasak Juegos infantiles

Abiatu da haur-parkeak hobetzeko lehiaketa, Sasoeta eta Garaikoetxea ikastetxeetan eta Iñigo Loiola kalean zorua eta jolasak aldatzea ekarriko duena. Horrez gain, Zelaialdeko zorua eta Atsobakarko tirolina ere aldatuko dira. Ahaztu gabe adingabe desgaituentzat egokitutako zabuak instalatuko direla 9 haur-parketan. Hori guztia 99.998 €ko zenbatekoan.

Iniciado el concurso de mejora de parques infantiles que permitirá sustituir el suelo y juegos en los colegios Sasoeta y Garaikoetxea, y en Iñigo de Loiola. Además, se cambiará el suelo en Zelaialde y la tirolina de Atsobakar. Sin olvidar, la instalación de columpios adaptados a menores con discapacidad en 9 parques infantiles. Todo ello por un importe 99.998 €.



Luminaria berriak Nuevas luminarias

Udalak 49.610 € bideratu zituen Setalderi Kale Nagusirako luminaria berriak erosteko, Tajamarko biribilgunetik hasi eta Ola Kalearekin bat egiten duen gunera bitartean. Gainera, Kale Nagusiko argiztapena lizitatu du (Ola kalea – Zumaburuko eliza tarte), Arranbide, Somoto parkea eta Pintore kalea, 123.271 €an.

El Ayuntamiento destinó 49.610 € para la adquisición a Setalde de las nuevas luminarias de Kale Nagusia en el tramo que va entre la Rotonda de Tajamar y su confluencia con Ola Kalea. Además ha licitado la iluminación de Kale Nagusia (tramo Ola k.-Iglesia de Zumaburu), Arranbide, Parque Somoto y Pintore kalea por 123.271 €.

Seinaletika Señalética

Lasarte-Oriako Udalak 71.074 € bideratu ditu bideak seinaleztatzeko, Giros SL eta Druck Servicios Gráficos SLU enpresen bitartez:

- Bide-seinale horizontalak
- Manttangorri hiribusaren seinalizazio horizontala eta bertikala
- Baserrien eta landaguneen toponimia
- Donejakue Bideko seinaleak

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria ha destinado 71.074 € para la señalización viaria a través de Giros S.L. y a Druck Servicios Gráficos, S.L.U.:

- Señalización horizontal viaria
- Señalización horizontal y vertical autobús urbano Manttangorri
- Toponimia de caseríos y zonas rurales
- Señales del Camino de Santiago.



Eguberrietako argiztapena Iluminación navideña

Eguberrietako jaiegunetan, Lasarte-Oriako kaleak tradiziozko gabon-argiekin apaindu ziren. Haiek instalatzearen kostua 21.102 € izan zen, eta Maykolux enpresak jarri zituen.

Durante las Fiestas de Navidad las calles de Lasarte-Oria mostraron la tradicional iluminación navideña. El coste de su instalación fue de 21.102 € y ejecutado por Maykolux.

Eskailera mekanikoak Escaleras mecánicas

Udalak Orona kontratatu zuen eskailera mekanikoen eskudetak aldatzeko, 37.452 €an.

El Ayuntamiento contrató a Orona para la sustitución de los pasamanos de las escaleras mecánicas por 37.452 €.

Altzariak mantentzea Mantenimiento mobiliario

Paperontziak, bankuak eta eskudetak lixatzeko eta pintatzeko lanen 2. fasea kontratatu zaio, hasitako lanarekin jarraitzeko, Jusa enpresari, 60.252 €an.

Se ha contratado una 2ª fase del lijado y pintado de papeles, bancos y pasamanos para continuar con el trabajo iniciado por 60.252€ a la empresa JUSA.

Komun publikoak Baños públicos

Lizitazioan dago Askatasunaren Parkean eta Atso-bakarren komun publikoak instalatzea, 131.082 €an.

Está en licitación la instalación de baños públicos en el Parque de la Libertad y en Atso-bakar por 131.082 €.

Jubilatuen elkarte Hogar del jubilado

Jubilatuen Elkarteko leihoak aldatzeko obren adjudikatarioa Iparagirre Eraikuntza enpresa izan da, 63.577 €ko kostuarekin.

La empresa Iparagirre Eraikuntza ha sido adjudicatario de las obras de sustitución de las ventanas del hogar del jubilado con coste de 63.577 €.



OBRAK ETA HIRIGINTZA OBRAS Y URBANISMO



Bidegorrien sarea Red de bidegorris

Udalak bi tarte berri buru-tzea lortu du: tarte bat Ola kalean, Añarbeko Uren bitartez, eta Donostiarekin Urbilen barrena lotzeko konexioa, Diputazioak egina.

El Ayuntamiento ha logrado la ejecución de dos nuevos tramos: un tramo en Ola kalea, a través de Aguas del Añarbe, y la conexión con Donostia a través del Urbil por la Diputación.

Itxitura Atsobakarren Cerramiento en Atsobakar

Hiri.Dunak Estudioak idatzi du Atsobakarko pergolei estalki berria jartzeko proiektua, 4.200 €ko kostuarekin. Haiek gauzatzea lizatazioan dago, 114.383 €ko zenbatekoarekin.

La empresa Hiri Dunak Estudio ha redactado el proyecto de la nueva cubierta de las pérgolas en Atsobakar por un coste de 4.200 €. Su ejecución está en licitación por un importe de 114.383 €.

Pinutegiko parkea Parque en Pinutegi

Foru Aldundia haur-parkea eta askaltokia egiten ari da Pinutegi kaleko 2.aren parean, 48.562 €ko kostuarekin.

La Diputación Foral está ejecutando un parque infantil y merendero enfrente de Pinutegi kalea nº 2 cuyo coste es de 48.562 €.



Sasoeta berrurbanizatzea Reurbanización de Sasoeta

Lizitazioan dago San Martzial eta Uzturre plazetako etxabeen berrurbanizazioa. Lizitazioko prezioa 499.565 € da: Eta, gainera, kirol-pista bat aurreikusten da Uzturrerako, ariketak egiteko makinak San Martzialen, eta auzo-elkartearentzako lokala egokitzea.

Está en licitación la reurbanización de los bajos de las plazas San Marcial y Uzturre. El precio de licitación es 499.565 €. Y además se prevé una pista deportiva en Uzturre, máquinas de ejercicio en San Marcial y la habilitación del local para la A. VV. del barrio.

Irisgarritasuna Accesibilidad

ANDATZAKO ARRAPALA: Plaza horretako irisgarritasuna hobetzeko arrapala. Exc. y Transp. Ateri izan da adjudicatarioa 60.139 €an.

RAMPA EN ANDATZA: rampa para mejorar la accesibilidad en dicha plaza. Exc. Y Transp. Ateri ha sido adjudicatario por 60.139 €.



BUENOS AIRES ALDAPA: Obrak berekin dakar urbanizazioa berritzea, espaloiak zabaltzea eta irisgarritasuna hobetzea. 532.097 €ko kostua izan du eta Construcciones Artzamendi enpresak burutu du.

CUESTA DE BUENOS AIRES: La obra supone la renovación de la urbanización, la ampliación de las aceras y la mejora de accesibilidad. Su coste ha sido de 532.097 € y fue ejecutada por Construcciones Artzamendi.

NAGUSIA-ASKORENA-GOIKALE: espaloi berriak, aparkalekuak eta oinezko eremuak berrantolatzea, zoladura eta argiztapena hobetuz. Kostua 404.996 € izan da eta Asfaltados y Construcciones Morga enpresa ari da egiten.

NAGUSIA-ASKORENA-GOIKALE: reordenación de nuevas aceras, aparcamientos y áreas peatonales, mejorando la pavimentación e iluminación. El coste ha sido de 404.996 € y la ejecuta Asfaltados y Construcciones Morga.

ZEBRABIDEA ORIAN: hori eginda, pasabideko segurtasuna hobetu egingo da Karmengo elizaren inguruan. Obra Construcciones Loidiri adjudikatu zaio 59.780 €an.


PASO DE CEBRA EN ORIA: su ejecución mejorará la seguridad del paso en la zona de la capilla del Carmen. La obra se ha adjudicado a Construcciones Loidi por 59.780 €.

INGURUMENA MEDIO AMBIENTE

Kontainer marroia Contenedor marrón

Udalerrian 5. kontainera ipintzeko ekimenarekin 3.000 inguru familiak egin dute bat. Erabiltzaile bakoitzari dohainik entregatu zaizkio zakarrontzia, txartela eta 75 poltsa.

Cerca de 3.000 familias se han sumado a la iniciativa del 5º contenedor instalado en el municipio. A cada usuario se le ha hecho entrega gratuita de un cubo, la tarjeta y 75 bolsas.



Airearen kalitatearen estudioa Estudio de calidad del aire

Udalak EHUko Zientzia Kimikoen Fakultateko Ingeniaritza Kimikoaren Taldeari adjudikatuko zion Lasarte-Orian airearen kalitatea aztertzeko estudioaren eta jarraipenaren lanketa. Lanen zenbatekoa 21.780 € izan da.

El Ayuntamiento adjudicó al Grupo de Ingeniería Química de la Facultad de Ciencias Químicas de la UPV-EHU la elaboración del estudio y seguimiento de la calidad del aire en Lasarte-Oria. El importe de los trabajos es de 21.780€.

Mugikortasunaren astea Semana de la Movilidad

“Mugikortasun zentzuduna. Ekonomia indartsua” goiburuekin ospatu zen Mugikortasunaren Europako Astea. Enpresa enkargatua Artelatz izan zen, 7.321 €an.

Bajo el lema “Movilidad inteligente. Economía fuerte” se celebró la Semana de la Movilidad Europea. La empresa encargada fue Artelatz por 7.321 €.

Zarataren mapa Mapa del ruido

2016an Akustika Aplikatuaren Zentroari kontratatu zitzaion Zarateren Mapa eguneratzeko lana, 19.602 euroan. Hots-ingurunea hobetzeko ekintza-plana ere haiei kontratatu zaie 12.705 €an.

En 2016 se contrató al Centro de Acústica Aplicada para la actualización del Mapa del Ruido por 19.602 €. También se les ha contratado el Plan de Acción de Mejora del Ambiente Sonoro por 12.705 €.

Pantaila akustikoak Pantallas acústicas

Udalak Foru Aldundiari eskatu dio N-1 autobian pantaila akustikoak ipintzen bukatu beharra dagoela, zaratek eragiten dituzten molestiak eragozteko.

El Ayuntamiento ha solicitado a la Diputación Foral la necesidad de terminar de instalar las pantallas acústicas en la N-1 para evitar las molestias por ruidos.

ETXEBIZITZA VIVIENDA

Etxabeen ordenantza Ordenanza de bajos

Udalak lokalen erabilera etxebizitzakora aldatzeko ordenantza berria onetsi du, etxebizitza prezio hobean eskuratzea errazteko eta gaur egun erabilerarik gabeko etxabe komertzialak dituzten zonen irudia hobetzeko helburuarekin.

El Ayuntamiento ha aprobado la nueva ordenanza de cambio de uso de local en vivienda con el objetivo de facilitar el acceso a la vivienda a mejor precio y mejorar la imagen de zonas con bajos comerciales actualmente en desuso.

Etxebizitzaren hitzarmenak Convenios de Vivienda

Alkateak hitzarmen bana sinatu zuen Neinor eta Zabaleta Berri promotoreekin. Horiei esker, prezio tasatuko 72 etxebizitza eraiki ahalko dira Goiegiko Ibarrean eta 52 Zabaleta Berrin, lasarteoriatarantzako baldintza onuragarrietan.

Alcaldía firmó sendos convenios con las promotoras Neinor y Zabaleta Berri que permitirán construir 72 viviendas de precio tasado en Vaguada Goiegi y 52 en Zabaleta Berri en condiciones ventajosas para los lasarteoriataras.

ZERBITZU SOZIALAK SERVICIOS SOCIALES



Solidaritatega Solidaridad

Banku bat kolore arrosaz pintatzeari ekin zitzaion, Kattalin Elkartearekin batera, bularreko minbizia dutenekin solidarizatzeke, eta banku bat gorritz, Gehiturekin, HIESaren kontrako borroka gogorarazteko.

Se procedió al pintado de un banco de color rosa junto a la Asociación Kattalin, en solidaridad con las personas con cáncer de mama, y de un banco rojo con Gehitu, en recuerdo de la lucha contra el SIDA.



Atsobakar zahar-etxea Residencia de Atsobakar

Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Foru Aldundiarekin, zahar-etxea handitzeko proiektu bat idazteko. Horrez gain, egoiliarren 6 plaza eta Egunezko Zentroko 10 bete dira, hutsik zeudenak.

El Ayuntamiento firmó un convenio con la Diputación Foral para la redacción de un proyecto de ampliación de la residencia. Además se han cubierto 6 plazas de residente y 10 de Centro de Día que estaban vacantes.

Pobreziaren kontrako borroka Lucha contra la pobreza

10.000 kilo janari inguru banatu dira baliabide falta duten 228 familiaren artean.

Se han repartido cerca de 10.000 kilos de alimentos entre 228 familias con falta de recursos.

Udalak hitzarmena sinatu du Lanbidek afektatuen plataformarekin, DBEaren behargabeko ordainketek afektatutako lasarteoriarrei aholkularitza emateko. Entitateak 3.000 € zituen.

El ayuntamiento ha firmado un convenio con la Plataforma de Afectados por Lanbide para asesorar a los lasarteoriaras afectados por los pagos erróneos de la RGI. La entidad recibió 3.000 €.

Pobrezia energetikoaren kontrako hitzarmen bana izenpetu zen EDP Naturgasekin eta Iberdrolarekin, baliabide urriko familiei argindarraren eta gasaren hornidura ez eteteko.

Se suscribieron sendos convenios contra la pobreza energética con EDP-Naturgas e Iberdrola para evitar el corte del suministro de electricidad y gas a las familiar con escasos recursos.

Hozkailu Solidario bat ipini da Kulturetxean, non elikagaiak utz daitezkeen, behar dituztenek edo balia ditzaketenek hartzeko.

Se ha instalado una Nevera Solidaria en la Casa de Cultura donde se pueden depositar alimentos para que los retiren personas que los necesiten o puedan hacer uso de ellos.



Berdintasuna eta generozko bortizkeria Igualdad y violencia de género

MARTXOAREN 8A

Data hori errebindikatzeko hainbat ekitaldi egin ziren.

8 DE MARZO

Se llevaron a cabo diferentes actos reivindicativos de esta fecha.

BERDINTASUNAREN ALDE ELKARTUTA

Kanpaina hori egin zen, festetan ere berdintasunaren alde lan egin behar dugula ez ahazteko

UNIDOS POR LA IGUALDAD

Se realizó esta campaña para no olvidar que en fiestas también hemos de trabajar por la igualdad.

Elkarteeekin egiten diren hitzarmen guztietan sartu da **BERDINTASUNAREN ALDEKO KLAUSULA** bat.

Se ha incluido en todos los convenios con asociaciones una **CLÁUSULA A FAVOR DE LA IGUALDAD**.

BELDUR BARIK

Sari horiek entregatu ziren, generozko bortizkeriaren kontra gazteek egindako bideoei zuzenduak. Edizio honetan 6 lan aurkeztu ziren.

BELDUR BARIK

Se hicieron entrega de estos premios para videos realizados por jóvenes en contra de la violencia de género. Esta edición contó con 6 trabajos.

AZAROAREN 25A OSPATU ZEN

ekitaldi nabarmenenak kontzentrazio bat eta Zentro Zibikoko emakumeekin banku bat morez pintatzea izan zirelarik.

SE CONMEMORÓ EL 25 DE NOVIEMBRE con una concentración y el pintado de un banco morado con las mujeres del Centro Cívico entre sus actos más destacados.

Osasunaren astea Semana de la salud

Aurten jorratu diren gai nagusiak hauek izan dira: ohitura osasuntsuak, buruko osasuna, sendagaien erabilera kontratua eta adikzioen prebentzioa.

Este año se hizo hincapié en los hábitos saludables, la salud mental, el uso de controlado de medicamentos y en cómo prevenir adicciones.

Desgaituentzako laguntzak Ayudas para la discapacidad

Udalak 300 €ko laguntzak ezarri ditu adingabe desgaituak edo dependentsiadunak dituzten familientzat, Sistema Publikoan sartuak ez dauden tratamenduak finantzatzeko.

El Ayuntamiento ha establecido unas ayudas de 300 € para familias con personas menores con discapacidad o dependencia para financiar tratamientos que no estén cubiertos por el Sistema Público.

Estereotipoen kontrako kanpaina Campaña contra los estereotipos

Lasarte-Oriako Udalak eta herriko zenbait elkartek kanpaina bat abiatu zuten migranteei buruzko estereotipo faltsuen kontra.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria y varias asociaciones locales lanzaron un campaña contra los falsos estereotipos sobre las personas migrantes.

MERKATARITZA ETA ENPLEGUA COMERCIO Y EMPLEO

Tratu On Bat

Gure merkataritzaren eta ostalaritzaren marka promozionatzeko, *Tratu On Bat* webgunearen kudeaketa berrituz eta ebentuko hauekin kolaboratuz:

- Ostalariekin eta elkarte gastronomikoekin Aste Gastronomikoa sortuz
 - Biziberritzen programa indartuz
 - Lasarte-Oriako Krosa, Ostadar SKTrekin
 - 2. San Silvestrea, CD Texas klubarekin
 - 2. Lasarte-Oria KaleriaFest jaialdia
- Bit&Mina enpresa kontratatu da, 3.600 €an, Webgune hori hobeto kudeatzeko.

Promocionamos la marca de nuestro comercio y hostelería renovando la gestión de la WEB de *Trau On Bat* y colaborando con eventos:

- Creando la Semana Gastronómica con hosteleros y sociedades gastronómicas
- Reforzando el programa Biziberritzen
- El Cross de Lasarte-Oria con el Ostadar SKT
- La 2ª San Silvestre con el CD Texas
- El 2º Lasarte-Oria KaleriaFest

Se ha contratado a la empresa Bit&Mina por un importe de 3.600 € para una mejor gestión de dicha WEB.



Fotografía: Txema Vallés.



Enplegua Empleo

ENPRESA BERRIENTZAKO LAGUNTZAK

Udalak itzuli beharrik gabeko 24.400 €ko finantzazioa eman zuen, merkataritzan, ostalaritzan edo zerbitzu pertsonaletan enpresa txikiak sortzeko. 15 enpresa izan ziren onuradun.

AYUDAS A NUEVAS EMPRESAS

El Ayuntamiento concedió 24.400 € de financiación a fondo perdido para la creación de pequeñas empresa en comercio, hostelería o servicios personales. 15 empresas fueron beneficiadas.

ENPLEGUGABEAK

Enplegurik gabe daudenei udaleko zenbait tasatan (Euskaltegia, Kiroldegia, Kulturetxea...) % 10eko hoberi fiskala ematea berreskuratu egin da.

DESEMPLEADOS

Se ha recuperado la bonificación fiscal de un 10% en ciertas tasa municipales (Euskaltegi, Polideportivo, Casa de Cultura...) para las personas que se encuentren en situación de desempleo.

KONTRATAZIOAK

Herriko enplegu-planaren bitartez, 9 langabetu kontratatu dira, 4 eta 6 hilabete artean lan egiteko. Kontratazioak hauek izan ziren: enplegu-dinamizatzaile bat, 3 argiketari laguntzaile, Guztion Lasarte-Oria-ren kudeatzaile bat, 1. mailako ofizial igeltsero bat, 1. mailako ofizial pintore bat, eraikuntzako peoi bat eta Lasarte-Oriako gida artistikoaren kudeatzaile bat, eta 125.735 € dauzka Lanbidekin finantzatuak.

CONTRATACIONES

Mediante el Plan de Empleo Local se ha contratado a 9 personas desempleadas entre 4 y 6 meses. Las contrataciones fueron: 1 dinamizadora de empleo, 3 ayudantes electricistas, una gestora de *Guztion Lasarte-Oria*, 1 Albañil oficial de 1º, un pintor oficial de 1º, 1 peón de construcción y 1 gestora de la guía artística de Lasarte-Oria y cuenta con 125.735 € financiados por Lanbide.



Aterpea hitzarmena Convenio Aterpea

Merkatari eta ostalarien elkartearekin sinatutako hitzarmenari esker, 10.000 €rekin kontatzen baitu, ekimen asko garatu ahal izan dira, Lasarte-Oriari indarra emanez merkataritzako eta aisiako espazio gisa:

- Stockaren Azoka, establezimenduen atarrietan
- Biziberritzen programa, komertzio itxien erakusleihoak beste batzuk promozionatzeko erabiliz
- Bezeroaren Hamabostaldia, kontsumitzaileen tzako eskaintza garrantzitsuekin
- Pintxoaren Ibilbidea, Martín Berasategiren partaidetzarekin, edo Ardo-dasta
- Eguberrietako jardunaldiak berreskuratzea.

El convenio firmado con la Asociación de comerciantes y hosteleros, que cuenta con 10.000 €, permite desarrollar muchas iniciativas, dando fuerza a Lasarte-Oria como espacio comercial y de ocio:

- la Feria del Stock, a las puertas de los comercios
- programa Biziberritzen, escaparates de comercios cerrados para la promoción de otros
- la Quincena del Cliente, con importantes ofertas para los consumidores
- la Ruta del Pintxo, con la participación de Martín Berasategi o la Cata de Vinos
- la recuperación de las jornadas de Navidad.



Egutegia Calendario

Udalaren aurtengo egutegiak 13 mural jaso ditu, *Guztione* Lasarte-Oria programakoak, zeinen helburua baita horma andeatuen itxura hobetzea eta kultura-euskarri izatea. 7.950 ale banatu ziren, 12.555 €ko kostuarekin.

Este año el calendario municipal ha recogido los 13 murales del programa *Guztione* Lasarte-Oria que trata de mejorar el aspecto de muros deteriorados y ser soporte cultural. Se distribuyeron 7.950 ejemplares con un coste de 12.555 €.

Hobaria Bonificación

Udalak % 30eko hobari berri bat sortu du bide publikoa okupatzaren tasan, erdigunetik kanpo dauden merkataritza edo ostalaritzako establezimenduentzat.

El Ayuntamiento ha creado una nueva bonificación del 30% en la tasa de ocupación de vía pública para aquellos comercios u hostelería que se encuentran fuera del centro.

Aparkalekua Aparcamiento

Udalak hitzarmena sinatu du Aterpearekin, kopuruz 1.000 €koa, eta horren bitartez komertzio bazkideek beren bazkideei doako aparkalekua eskaini diezaiekete Loidi-Murias parkingean.

El Ayuntamiento ha firmado un convenio con Aterpea de un importe de 1.000 €, mediante el cual, los comercios asociados pueden ofrecer aparcamiento gratuito a su clientela en el Parking de Loidi-Murias.

FESTAK FESTEJOS



Fotografía: Txema Vallés.

Auzoetako festak Fiestas de barrio

Zabaleta, Basaundi eta Oria auzoetako festa tradizionalei, programa sendoagoarekin eta bakoitzak 2.894 €ko diru-laguntza jasota, Sasoetako jaiak gehitu zitzaizkien, auzoko bizilagunen elkarteari esker, eta 1.000 €-ko diru-laguntza izan zuten. Udalak Azkorteke erromeriarekin ere kolaboratu zuen, 2.454 €rekin, bai eta Santa Ana Parodiarekin ere, 5.075 €rekin.

A las tradicionales fiestas de Zabaleta, Basaundi y Oria, con un programa reforzado y 2.894 € de subvención cada una, se sumaron las fiestas de Sasoeta, gracias a la A. VV. del barrio que contó con una subvención de 1.000 €. El Ayuntamiento también colaboró con la Romería de Azkorte con 2.454 € y la Parodia de Santa Ana con 5.075 €.



Fotografía: Txema Vallés.

Inauteriak Carnavales

“Itsasoa” izan zen Inauterietako gai nagusia. Udalak 12.000 € destinatu zituen konpartsentzat eta haien karrozentzat. Era berean, Ttakuni 3.594 €ko diru-laguntza ematea Euskal Inauteriak antolatzeagatik.

“El mar” fue el tema central de los Carnavales. El Ayuntamiento destinó 12.000 € para las comparsas y sus carrozas. Así como una subvención de 3.594 € a Ttakun por la organización del Euskal Ihauteriak.



San Pedro jaiak Fiestas de San Pedro

San Pedro jaiak, programa mardul batekin, aurten 172.923 €ko aurrekontua izan zuten. Landaberi Ikastolak omenaldi herrikoia jaso zuen bere 50 urteko bizitzagatik.

Las Fiestas de San Pedro, con un potente programa, contaron este año con un presupuesto de 172.923 €. La Ikastola Landaberi recibió el homenaje popular por sus 50 años de vida.

KIROLAK DEPORTES

Atsobakarko zelai berria Nuevo campo de Atsobakar

Negoiazioak egin dira Usurbilgo Udalarekin, Atsobakarren bere titularitatepeko partzela bat utz dezan, futboleko zelai berri bat eta atletismoko pistak eraikitzeko. Ezezkoa eman arren, Udalak proiektua Sestra enpresari adjudikatu dio, 54.329 €an, eta geure jabetzako partzeletan gauzatu da.

Se han realizado negociaciones con el Ayuntamiento de Usurbil para la cesión de una parcela de su titularidad en Atsobakar para la construcción de un nuevo campo de fútbol y pistas de atletismo. A pesar de su negativa, el Ayuntamiento ha adjudicado el proyecto a la empresa Sestra por 54.329 € y se ejecutará en nuestras propias parcelas.

Lasterketak Carreras

II. SAN SILVESTREA

CD Texas klubarekin egindako hitzarmenak ere 2.000 €ko ekarpena ezarri zuen dortsalak erosteko eta Tratu on Bat motxilak emateko.

II SAN SILVESTRE

El convenio con C.D. Texas también contó con una aportación de 2.000 € para la adquisición de dorsales y la entrega de mochilas Tratu on Bat.



Fotografía: Txema Vallés.

XXI. LASARTE-ORIA BAI KROS HERRIKOIA

Ostadar SKTrekin egindako hitzarmenak 2.000 €ko diru-laguntza ezarri zuen dortsaletarako eta parte-hartzaileei motxilak emateko.

XXI CROSS POPULAR LASARTE-ORIA BAI

El convenio con C.D. Ostadar estableció una subvención de 2.000 € para los dorsales y la entrega de mochilas para los participantes.



Omenaldia olinpikoei Homenaje olímpicas

Abuztuan Lasarte-Oriako herriak omenaldi instituzionala eta herrikoia egin zien bi kirolari olinpikoei: Maialen Chourraut eta Nely Carla Alberto. Horrez gain, Udalbatzarrak erabaki zuen kiroldegia izena aldatzea eta "Maialen Chourraut" Kiroldegi Munizipala izendatzea.

En agosto el pueblo de Lasarte-Oria realizó un homenaje institucional y popular a las dos deportistas olímpicas: Maialen Chourraut y Nely Carla Alberto. Además, el Pleno Municipal decidió cambiar el nombre del polideportivo por Polideportivo Municipal "Maialen Chourraut".

Ordutegia zabalatzera Ampliación del horario

Egutegi berriarekin, "Maialen Chourraut" kiroldegi munizipalak eta Michelingo kirolguneak udako ordutegia ordubete zabaldu dute astelehenetik ostiralera.

El polideportivo municipal "Maialen Chourraut" y la zona deportiva de Michelín han ampliado su horario de verano una hora de lunes a viernes con el nuevo calendario.

Federatuentzako abonamendua Abono federados

Udalak onetsi du % 30eko deskontua duen abonamendu berri bat sortzea udalaren kirol-instalazioak entrenamenduko egunetan bakarrik erabiltzen dituzten kirolari federatuentzat.

El Ayuntamiento ha aprobado la creación de un nuevo abono con un 30% de descuento para deportistas federados que solo utilicen las instalaciones deportivas municipales los días de entrenamientos.



2016 Kirol-merezimenduaren sariak Reconocimientos deportivos

Aurten, parte-hartezko prozesu baten ondoren, merezimendua aitortzeko hautatutakoak hauek izan ziren:

Este año, tras un proceso participativo, las personas elegidas para el reconocimiento fueron:

EMAKUMEZKO KIROLARIA
DEPORTISTA FEMENINA

AIZPEA ARROYO

*Gimnasia Erritmikoa
Gimnasia Rítmica*

GIZONEZKO KIROLARIA
DEPORTISTA MASCULINO

JON ANDER PUERTAS

*Errugbia
Rugby*

KIROLARI-IBILBIDEA
TRAYECTORIA DEPORTIVA

JOSÉ MARÍA INDIAS

*Futbola
Fútbol*

KIROLAK DEPORTES

Ekipamenduak hobetzea Mejora de Equipamientos

Kiroldegiko estalkia eta luzer-
narioa inpermeabilizatzea.
Impermeabilización de la cubierta y
del lucernario del Polideportivo.
J.A. AIZPURUA - 41.133 €

Spinning-eko 20 bizikleta eta ko-
rrrika egiteko zinta bat erostea.
Compra de 20 bicicletas de *spin-
ning* y 1 cinta de correr.
ARGYSAN - 37.637 €



Gimnasioko zorua bernizatzea.
Barnizado del suelo del gimnasio.
IÑAKI LASAK - 4.174 €

Aireztapen behartuaren bidez kon-
dentsazioa eragozteko sistema.
Sistema contra la condensación
mediante ventilación forzada.
ARKAKUSO SYSTEMS - 12.764 €

Kiroldegiko dutxak legionellaren
kontrako legedira egokitzeko lanak.
Adecuación de las duchas del
Polideportivo a la legislación
contra la legionella.
TARTE S.L.- 32.128 €

Michelingo frontoia saskibaloio-
rako eta areto-futbolerako pista
polibalente gisa egokitzea.
Habilitación del Frontón de
Michélin como pista polivalente
para baloncesto y fútbol sala.
5.252,61 €

Trinket municipalen estalkian haizetea-
gatik izandako hondaketak konpontzea.
Arreglo de los destrozos a cau-
sa del viento en la cubierta
del trinquete municipal.
CUBIERTAS PAGOLA - 12.415 €

GAZTERIA JUVENTUD



| Kultur Kale Zikloa

7 musika-taldek girotu zituzten
Lasarte-Oriako udaleko arratsal-
deak, eta aurtien auzoetara
ere hurbildu ziren. Programa
Xpressionek kudeatu zuen, eta
4.000 € kostatu zuen.

7 grupos musicales anima-
ron las tardes estivales de
Lasarte-Oria, que este año se
acercó también a los barrios. El
programa fue gestionado por
Xpression y costó 4.000 €.

| Kalera Fest

Abenduan, Esna Hadik, 50
kolektibo, ostalari eta merkatari
baino gehiagoren babesarekin,
festa hau antolatu zuen, kalea
garrantzizko festa-gune gisa
errebendikatzen zuena, Udalaren
sostengua izan zuelarik, 3.676 €
destinatu baitzituen.

En Diciembre Esna Hadi, con el
apoyo de más de 50 colectivos,
hosteleros y comerciantes, or-
ganizó esta fiesta que reivindi-
caba la calle como un importan-
te espacio festivo, contando con
el apoyo del Ayuntamiento que
destinó 3.676 €.

EGUBERRIETAKO HAUR-PARKEA

EHPak, 27.273 €ko kostuarekin eta Anima
Services-ek kudeatuta, Bitarten familientzat
jarritako karpa izan zuen berriz ere, parkea
Oria auzora hurbiltzeko xedez. Hiru gune
ezberdin izan ziren abenduaren 22tik 31ra
funtzionatu zutenak.

PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD

El PIN, con un coste de 27.273 € y gestiona-
do por Anima Services, volvió a contar con
una carpa destinada a familias en Bitarte,
para acercarlo al barrio de Oria. Tres espa-
cios diferentes que funcionaron del 22 al 31
de diciembre.

ARTISTEN ERREGISTROA

Udalak erregistro bat sortu du, era guztie-
tako modalitate artistiko edo eszenikoetako
artista lasarteoriatarrek aukera izan dezaten
bere proposamenak ezagutzera emateko eta
lehiaketei, lokalen zesoari eta abarri buruz
informatuak izateko.

REGISTRO DE ARTISTAS

El Ayuntamiento ha creado un registro
para que artistas lasarteoriatarra de todo
tipo de modalidades artísticas o escénicas
puedan dar a conocer sus propuestas, y
poderles informar sobre concursos, cesión
de locales...

GAZTELEKUA

Gaztelekuan ikastaro mordo bat antolatu
dituzte: Graffiti, Gitarra, Sushiaren edo
pintxoaren prestaketa, Break Dance & Shuffle,
arteterapia, perkusioa... Lizitazioan dago
Nerabeentzako arretera-zerbitzua, 77.265 €an.

GAZTELEKU

En el Gazteleku se han organizado múltiples
cursillos: Graffiti, Guitarra, Preparación
de Sushi o pinchos, Break Dance & Shuffle,
arteterapia, percusión... Está en licitación el
Servicio de Atención a la Adolescencia por
77.265 €.

KULTURA ETA HEZKUNTZA CULTURA Y EDUCACIÓN

Agenda 21 Eskolarra foroa Foro Agenda 21 Escolar

Eskola-umeek beren ikastetxeetan egindako lanaren ondoren, Agenda 21 Eskolarra foroa batzar-aretoan alkatearekin bildu zen, efizientzia energetikoari eta mugikortasunari buruzko gaiez aritzeko eta beren konklusioak azaltzeko.

Tras el trabajo realizado por los escolares en sus centros el Foro Agenda 21 Escolar se reunió en el Salón de Plenos con el alcalde para tratar cuestiones relativas a la eficiencia energética y la movilidad, exponiendo sus conclusiones.



Zumaburu H.I. C.P. Zumaburu

Eraikinean obretan ari zirela arazo estrukturalak agertu zirela eta, beharrezkoa izan da ikasleak aldi baterako Euskaltegi zaharrera lekualdatzea eta Eusko Jaurilaritzak jardun dezan gestioak egitea.

La aparición de problemas estructurales durante las obras en el edificio ha obligado a trasladar temporalmente al alumnado al Antiguo Euskaltegi y hacer las gestiones para que el Gobierno Vasco actúe.

Eskolako materiala erosteko laguntzak Ayudas compra material escolar

Lasarte-Oriako 53 eskola-umeren 33 familia izan ziren 2016-2017 ikasturterako eskola-materiala erosteko laguntzen jasotzaile. Onetsitako laguntzen kopuru totala 2.740 € izan zen.

33 familias de Lasarte-Oria con 53 escolares fueron receptoras de las ayudas para la compra de material escolar para el curso 2016-2017. El total de las ayudas aprobadas ascendió a 2.740 €.

Pablo Garaikoetxea H.I. C.P. Pablo Garaikoetxea

Iparagirre Eraikuntzak aldatuko ditu ikastetxe horretako leihoak, 288.023 €an.

Iparagirre Eraikuntza realizará la sustitución de las ventanas de este centro por 288.023 €.



Andrejoakinaenea haur-eskola Haurreskola Joakina Enea

Eskolako leihoak aldatu egin dira, isolamendua hobetzeko. Leihoak zurezkoak dira, eta 48.755 €ko kostua izan dute.

Se han cambiado las ventanas del centro escolar para mejorar el aislamiento. Las ventanas, que son de madera, han tenido un coste de 48.755 €.

Kultura Cultura

AZOKA JAKUETARRA

Aurten, azokak Donejakue Bidea hartu zuen gaitzat. Artisautzako eta janari-produktuen 90 postuk eta makina bat jarduerak kolorez eta animazioz bete zituzten gure kaleak.

FERIA XACOBEA

Este año la feria tomó como tema la Ruta Xacobe. 90 puestos de artesanía y productos alimenticios y múltiples actividades llenaron de color y animación nuestras calles.

KULTURA AUZOETARA

Ekainean eta uztailan zehar, Udalak "Kultura Auzoetara" programa jarri zuen martxan, 2.205 €ko kostuarekin, eta zenbait jarduera kultural Lasarte-Oriako 5 auzotara hurbildu zituen: Atsobakar, Oria, Zumaburu, Zabaleta eta Sasoeta.

KULTURA AUZOETARA

A lo largo de los meses de Junio y Julio el Ayuntamiento puso en marcha el programa "Kultura Auzoetara" que acercó diversas actividades culturales con un coste de 2.205 € a 5 barrios: Atsobakar, Oria, Zumaburu, Zabaleta y Sasoeta.

LITERATURA-LEHIAKETA

2016ko lehiaketako sarien banaketarekin amaitu ziren haurrentzakoaren 29. edizioa eta helduentzakoaren 30.a. 437 lan aurkeztu ziren haurrentzako hiru kategorietara, 58 helduentzako eta 68 mikrokontakizun.

CONCURSO LITERARIO

Con la entrega de premios del certamen de 2016 concluyeron las ediciones 29º para el infantil, 30º para el de adultos. Se presentaron 437 trabajos a las tres categorías infantiles, 58 a las de adultos y 68 microrrelatos.

ANTONIO MERCERO ESPAZIOA

Erakusketen aretoa eta hitzaldi-areto berri bat habilitatu dira. Materialak (errezelak, ekipamendua, ikus-entzunezko ekipoa eta argiztapena) 26.105 €ko inbertsioa eskatu du.

ESPACIO ANTONIO MERCERO

Se ha habilitado la sala de exposiciones y una nueva sala de conferencias. El material (mesas, sillas, cortinas, equipamiento, equipo audiovisual e iluminación) ha supuesto una inversión de 26.105 €.

EUSKARA EUSKERA



Euskararen Maratoia Maratón de Euskera

"Irten armairutik" goiburuekin egin zen aurten Euskararen Maratoiaren 9. edizioa, "zortzikotearen" zuzendaritzapean. Edizio honek balio izan zuen Lasarte-Oria 40 egunez euskaraz bizi zedin, egun bateko ospakizuna izatetik 40ko konpromisoa izatera pasatuz.

Herritarrek maratoian aktiboki parte hartzea erronkatzat jarrita, gogotik lan egin zen 957 "ahobizi" eta 1927 "belarriprest" lortzeko. Maratoiak zentratu zituen Lasarte-Orian euskara sustatzearen arloan aurten egin diren ahaleginen parte handi bat.

Ekintzak abenduaren 3an amaitu ziren, Euskararen Nazioarteko Egunarekin, Okendo plazan hainbat ekitaldi eginez.

Bajo el lema "Irten armairutik" se celebró este año la 9ª Edición del Maratón de Euskera bajo la dirección del "zortzikote". Esta edición sirvió para que Lasarte-Oria viviera 40 días en euskera, pasando de ser una celebración de un día a un compromiso de 40.

Poniéndose como reto que la ciudadanía tomara parte activa en el maratón se trabajó duro para lograr 957 "ahobizi" y 1927 "belarriprest". El maratón centró gran parte de los esfuerzos que durante este año se han realizado en materia de promoción del euskera en Lasarte-Oria.

Los actos terminaron el 3 de Diciembre, Día Internacional del Euskera, con diferentes actividades en la plaza Okendo.

UDALTOP

Apirilean egin ziren Euskadi osoko zerbitzu municipalen jardunaldi hauek, 200 lagun inguru bildu zituelarik. Aurtengo jardunaldien izenburua hau izan zen: "Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?".

En abril se celebraron estas jornadas de los servicios municipales de toda Euskadi, reuniendo a unas 200 personas. El título de las jornadas de este año fue "¿Para cuándo el deporte en el modelo D? ¿Quién y qué podemos hacer para garantizar que el deporte escolar sea en euskera?".

Hitzarmenak Convenios

Lasarte-Oria euskararen erabiltzera sustatzera bideratutako hainbat hitzarmen sinatu zituen Udalak:

El Ayuntamiento firmó varios convenios destinados a la promoción del uso del euskera en Lasarte-Oria:



GURASO-ELKARTEAK / AMPAS

52.487 € elkarte hauekin sinatutako lankidetzako hitzarmenak finantzatzeko: Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe elkarte, Institutuko Kaxkarro elkarte eta Landaberri ikastolako Guraso Elkarte. Hitzartutako programen artean daude Irakutrezin, Esazu eta Irrintzi aldizkariak, pertsona ezagunen bisitak, Hezitzaileek asko egin dezakete! edo Gu ere bertsoan.

52.487 € para financiar convenios de colaboración con las asociaciones Burunzpe del colegio Sasoeta-Zumaburu, Kaxkarro del Instituto y Landaberri Guraso Elkarte de la ikastola. Entre los programas acordados están las revistas Irakutrezin, Esazu y Irrintzi, visitas de personajes conocidos, Hezitzaileek asko egin dezakete! o Gu ere bertsoan.

TTAKUN

208.478 € hurrengo programa hauentzat:
208.478 € para los siguientes programas:

25. Urteurrena / 25 Aniversario

Obregatikoz zerga pagatzea

Pago de impuestos por obras

Udako txokoak

Udako kanpaldiak

Gazte kluba

Kuadrillategi

Gazteen hizkuntza-trebetasunak garatzen

Famili-transmisioa

Solaskide solasbide

Erakundeak euskalduntzen

Bertso Eskola

Txintzarri aldizkaria

